# AZOKAKALEA

B4

## Izenaren jatorria

**Izenaren etimologia (toponimikoa):**
Merkatua egiten zan kalea edo ingurua.

## Muga geografikoak

Iparraldetik San Juan kaleak eta hegoaldetik Adolfo Uriostek mugatzen dabe. Uriko beste kale paraleloen moduan, hau be erdi-erditik kurutzatzen dau Andra Mari kaleak. Erdigunean eta kalearen ekialderantza Foru edo Udaletxearen plaza dago.

## Ezaugarri historikoak

1494ko urtarrilaren 14ko pregoi baten agiri da lehenengo aldiz kale hau, "las cuatro calles" aitatukeran. 1511ko "Foguera-Vecindario"an "La Segunda calle" lez agertzen da. 1514koan ez da berariaz aitamenik egiten, baina bertako etxebixitzak Yausaondoko errebaleko etxeetan sartzen dira Artekalekoakaz batera eta beharbada Barrenkalekoak be bai.

Beste kaleakaz gertatzen ez dan lez, kale honen izenak ez dauka jatorria topografian. Seguruenik bere antxinako izena beste bat izango zan, hasiera baten azokea Andra Mari eleizearen atarian egiten zan-eta. Azoka izena "Uriagirian" agertzen da 1366an eta gaztelerazko "Azoque" berban dauka jatorria (merkatua, azoz, zoco).

Kale hau izan zan Erdi Aroan eta luzaroan uriaren ardatz nagusia eta bertatik igaroten zan Bermeo eta Gaztelako lautada lotzen ebazan "La Ruta del Vino y del Pescado". Bide hau uritik igaroten zan, baina zaharragoa zan "Erret Bidea" edo "Jaurespen Bidea", ostera, uribildutik kanpo joian. Kalea kurutzatu ondoren iparralderantza joten eban Santa Anako Ateraino Txorraburuko Estrata barritik. Hegoalderantza, behin kalea atzean itxita, eta "portal del Angel" eritxana kurutzatuta, bideak jarraitu egiten eban Pasealekurantza eta Juan Caltzadarantza.

Kale honi 1746an hasi jakozan Azokakalea deitzen. XVIII. mendearen amaieran "Arostegi-Kantale" izena eukan eta Frantziako Konbentzio Gerra ostean, "Frantseskale" deitzen eutsan jenteak, izan be, gerrea zala-eta, atzerriraturiko frantses piloa bizi zan kale honetan.

## Edifizio aitagarriak

**Gizarte Etxea:** sarrera txiki bat eukan eta kalearen mendebaldean egon zan 1998ra arte. Bertan egozan jolaserako txokoak eta Gernikako Arte-Eskolaren lokalak.

**Mezeta Etxea edo "Casa de los Muñecos":** Gernika-Lumon sarritan aginpidea izan dauen Mezeta familiaren jatorrizko etxea zan. Etxea Uri-gutunean be aitatzen zan. Aurreko aldean eukazan irudiakaitik ipini eutsien herritarrek "Casa de los Muñecos" izena. Loizaga etxea be etxe horren ondoan egon zan, eta bertan barriro eregiten ebilzala, brontzezko txanpon erromatar bat agertu zan. Txanpon hori Trajanoren garaiko "denarius" bat zan. Orube honetan gaur egun Kultur Etxea dogu.

**"Artes y Oficios":** edifizio hori "Regiones Devastadas" erakundeak altzau eban. Aurrealdean Lucarini izeneko preso politiko batek eginiko Ama Birjinearen irudi bat dauka. Gaur egun Kultur Etxea da.



**Lopez de Calle Txaleta-Etxea:** frantziar estiloko hotel neobarrokoa zan, lorategi ederrak eukazan, eta bonbardaketa izan eta harik bi egunera sute batek erre eta hondatu eban etxea. Orubeko errautsak eta hondakinak garbitu ondoren, fulbol zelai bihurtu zan ("El Campo de los Hermanos"). Inguru honetan 1974an bonbardaketan abioi batetik jaurtiriko eta eztanda egin bako bonba bat topau eben.

**Alhondiga:** kale honetako orube baten egon zan gernikarren janariak gordeten ziran biltegia edo Alhondiga eta "Casa de Positos de la Villa" deitzen zana. 1521eko suteak sarraskitu egin eban eta 1571n altzau eben barriro. 1550ean Alhondiga Juan de Abendañoren lonja baten egoan eta alokairuaren truke 500 maravedi ordaintzen jakozan.

**Loizaga Jauregia:** edifizio neoklasikoa, kalearen iparekialdean egoan. Familia berarena izan zan txaletari gertatu jakon moduan, bonbardaketa izan zanetik bi egunera sute batek hondatu egin eban guztiz. Harriak banan-banan hartu eta oso-osorik eregi eben barriro Kantabrian.

# BARRENKALE BARRENA

B5

## Izenaren jatorria

**Etimologia (toponimoa):**
Barrenkalea baino beherago dagoana.

## Muga geografikoak

Ekialdetik " 8 de enero" kaleak egiten deutso mugea eta mendebaldetik Barrenkaleak.

## Ezaugarri historikoak

Antxina, toki honetan Gernikako "Puerto de Yuso" eritxan kaia egon eiteken, baina geroago "Santos Juanes" eleizea egoan tokia eta uriko etxeen arteko kaletxua izan zan. Gernika eta Lumoren batasuna ospatzeko, artean Barrenkale Barrena zan kaleari "8 de enero de 1882" izena ipini eutsien eta beranduago, izen hori ipini jakon aitatu dogun eleizearen ondoko kaleari.

B4

# BARRENKALEA

## Izenaren jatorria

**Izenaren etimologia (toponimikoa):**
Beheko kalea.

## Muga geografikoak

Uriguneko beste kale batzuk lez, iparraldean San Juan kalean dauka mugea eta hegoaldean Adolfo Urioste kalean amaitzen da.

## Ezaugarri historikoak

Kale hau, egitura topografikoari jarraituz, uriaren berezko antolaketan sartzen da. Barrenkalea, esanguraz, "beheko kalea" besterik ez da, "Yusera". 1511n aitatzen zan kale hau eta hurrengo urteetan izen zabalagoa eta zehaztu bakoagoa eukan: Yausaondoko errebala. 1704an "Tercera" izenagaz agertzen zan. Gero, luzaroan ez zan agertu barriro inongo agiritan, 1796ko Fogerazinora arte.

Bere kokalekuagaitik (uriaren beherengo aldean -barrenean-, ibarrean eta inguru zingiratsuetan) beranduen urbanizautako kalea dogu eta, horregaitik, bertan ez dago aparteko edifiziorik, lurpea etxeak egiteko ezegonkorra zalako.

Yusera, Tercera, Barrenkalea izenak izan dauz, eta XX. mendeko bigarren hamarkadan Isidoro Leon deitu eutsien. Gizon hori Gernikako alkatea; Probintziako Diputadua; Logroño, Burgos, Badajoz, eta beste probintzia batzuetako Gobernadore Zibila; eta abar izan zan. Kargu politiko honeezaz gainera, trenbidearen zuzendari izan zan eta berak bultzatu eban Gernika-Lumoko industrializazinoa. Baina batez be, gure eskualdean Gandarias enpresa-gizon eta jauntxoaren laguntzaile eta morroirik fidelena izan zan.

## Edifizio aitagarriak

XX. mendearen amaieran kalearen iparraldean etxe barri batzuk egiten ebilzala, burdin minerala garraiatzeko Erdi Aroko "venaquero" itxurako gabarra bat agertu zan. Kontuan izan behar dogu Fogerazinoetan "casas del cantón del puerto" deituriko etxeak aitatzen dirala, kalearen iparraldeaz berba egiten danean. Portuaren hegal hori, desagertutako San Juan eleizearen inguruan egon eiteken.

# BETANZOS GOTZAIA PLAZA

A5

## Izenaren jatorria

**José María Betanzos Omaetxebarria (1863-1949)**, Lumoko semea, frantziskotar misiolaria, Gallipoliko gotzaina eta Tangerko Bikario Apostolikoa. Gizon apala, ekimen handikoa eta eskuzabala. Bere ekimenaren adierazle dira Larache, Alcazarquivir, Xauen, Castillejos, Tarquist eta Tetuaneko San Antonio misino etxeak, Zeluango eleizak, Tetuan eta Laracheko ospitale militarrak eta beste batzuk.

Sari garrantzitsuak lortu zituan: Benefizentzia Kurutzea, Isabel Katolikoaren Kurutze Handia edo Italiako Koroaren Kurutze Handia. Marokoko alde espainiarreko Jalifa Gorentasun Inperialak maila goreneko Mehdaniagaz saritu eban.

## Muga geografikoak

San Pedro auzoko erdiguneko etxea baserri honeezaz inguratuta dago: Lejarreta, Bollegi, Etxetxua, Oskoetxe, Beaskoetxea, Lumogoitia, abade-etxea, Lumo torrea eta San Pedro eleizea bera.

## Edifizio aitagarriak

**San Pedro eleizea.** Eleiza hau 1051ko dokumentuetan aitatzen da daborduko. Antxinako denporetatik Mezetatarren etxeari lotuta agiri da eta Don Tellok Gernika fundau ebanean uri barriari emon eutsan, baina handik egun gitxira Juan Sanchez de Mezetak behin betiko arrendamentua lortu eban.

Hasiera baten egoan eleizea XVI. mendean ostera be egin eta handitu eben. XVII. mendean Mezetatarrek barrikuntzak egin ebezan: kanpai barri bi eta torre barri bat. Juan Martinez de Lumok, bere aldetik, errelikia batzuk emon ebazan (San Julian martiria, San Pedro martiria eta San Redemas martiria). XVIII. mendean, Mezeta eta Allendesalazar familien alkarteak eraginda, gehiago arduratu ziran patronatoaz eta eleizako erreformak bultzatu ziran. Horren adibide Alejo Allendesalazar eta Mezeta apaiza daukagu, eleiza honetako patronoaren anaia, Ofizio Santuko komisarioa Nafarroan eta urteetan San Pedro eleizako abade eta Benefiziatua izan zana.

Sasoi honetan organoaren barrikuntza ordaindu eta Juan Bidaguren eta Antonio bere semea kontratau ebezan organista moduan. XIX. mendean gaur egun daukagun eleizea osotu zan: gangak, teilatu barria, pulpitua eta sakristia. Gainera, presbiterioa handitu egin zan, eleizea nibelau eta oholtza barria jarri, hegoaldera leihoak atera eta koruko eskailera hutsitu. XX. mendean, teilatua eta barruko margoa mantentzeaz gainera, gaur egun dagoan organoa jarri zan.

Lumoko Torrea. Urte askotan Mezetatarren oinetxea, gero XIX. mendera arte San Pedroko patronatoa euki eben Allendesalazartarrena. Jaubeen zerrendea Juan Sanchez de Mezetagaz hasi zan 1366an eta Manuel Maria Allendesalazar y Loyzagagaz amaitu.

Bere egitureak ohiko eskemeari jarraitzen deutso: oin karratua eta teilatua lau aldetara. Hiru solairuko etxea da. Etxeaurrea hegoalderantza begira dauka. Leihoak alde guztietara begira dagoz eta hirugarren solairuaren aurrealdekoak handiagoak dira. Dekorazino elementu nagusia ate nagusiaren ondoan dagoan armarria da.

A5

A6

# CARLOS GANGOITI KALEA

## Izenaren jatorria

**Izenaren etimologia (patronimikoa):**

**Carlos Gangoiti Arruza-zabalak**, jatorriz gernikarra, Calzada egoitza testamentuan (Buenos Aires 1922-4-11) Argentinako Errepublikan eukazan ondasunen bosten bat itxi eutsan. Itxitako ondasunak dirua (7.329 peso) eta lurrak (1.072 hektarea Azul Distritoan eta 625 hektarea Las Pampas Distritoan) ziran. Argentinako ekonomian gorabeherak zirala kontuan eukita, lurrok hogei urteren barruan saldu eta beste gauza batzuetan inbertidu be egin ziran.

## Muga geografikoak

Hegoaldetik Artekalearen jarraipena da, San Juan kalea bien arteko mugea dala. Iparraldetik Foruk egiten deutso mugea.

## Ezaugarri historikoak

Gernikako iparraldeko zabalgunea da. Bertan aitatzeko moduko hainbat zerbitzu dagoz, berbarako: Gernika hotela, Suhiltzaileak, Santanape Kiroldegia (eskuz jokatzeko frontoia bertan dago), eta ikastetxe bi (San Fidel Ikastola eta Institutua)

## Edifizio aitagarriak

**San Fidel Ikastola:** karmeldarren ikastetxea 1979ra arte eta gaur egun ikastola. Gernikako irakaskuntzaren lekuko garrantzitsua (100. urteurrena 2001ean ospatu zan), gaur egun daukan egiturea zati bitan banandu geinke: edifizio zaharra, 1907an inaugurau zana, hasieran Fidela de Olaeta gernikarraren diru laguntzeagaz eta geroago Ramon de Goiria y Basterretxea apaizarenagaz, 1936. urtean Gerra Zibilean ospitale moduan erabili zan; eta edifizio barria, oraintsu inaugurautakoa.

**Institutua:** Gernikako irakaskuntzaren beste lekuko inportantea. Orain institutua dagoan lekuan 1963ra arte Agustindarren ikastetxea egoan. 1894an Gernikako Udalaren laguntzeagaz ipini zan 1896an inaugurauko zan edifizioaren lehenengo harria. Harrezkero, Gerra Zibilaren etena kenduta (preso politikoen espetxe moduan erabili zan), 1963ra arte Agustindarrek ekin eutsien irakaskuntzari. Urte horretan Agustindarrek Gernikako Udalari saldu eutsien ikastetxe-abadegaitegia zana bertan Batxilergoko Institutua jarteko eta gaur egun bertan dirau.

**Jai Alai frontoia:** 1963an inaugurauta, ikur da pelota munduan (Zestapuntan batez be). Secundino Zuazo arkitektoaren proiektua zan. Solairu bi daukaz eta kartaboi itxurako egitura sinplea, iparraldetik argiari zabalik dago, inklinazinoek eta kurbaturek izaera berezia emoten deutsiela. Aitatzeko modukoa da fatxadan daukan zestapuntisten harrizko eskulturea be, Lucarinik egindakoa..